

# **Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako Departamentuaren Hizkuntza Plana 2023-2027**

# Aurkibidea

1. Sarrera eta lege esparrua .....	3
2. Departamentuaren hizkuntza egoera .....	8
3. Departamentuaren 2023-2027 ekintza plana .....	16
1. Lan ardatza: Ezagutza .....	17
2. Lan ardatza: Erabilera.....	20
3. Lan ardatza: Kudeaketa.....	24
4. Planaren jarraipena eta ebaluazioa.....	25
5. Eranskinak .....	29
1. Eranskina: Euskararen egoera Nafarroan.....	29
2. Eranskina: Departamentuetako 2019-2022 planen ebaluazioaren ondorio nagusiak.....	35

# 1. Sarrera eta lege esparrua

Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako Departamentuak 2023-2027 Hizkuntza Plana<sup>1</sup> diseinatu du, Nafarroako herritarrei kalitatezko arreta elebiduna emateko bidean aurrera egiteko, 2019-2022 Hizkuntza Planari jarraipena emanez.

Nafarroako Gobernuako departamentuen eta beraiekin lotura duten edo beraien menpeko diren erakunde publiko eta zuzenbide publikoko entitateen hizkuntza plangintza garatzea 103/2017 Foru Dekretuan jasota dago, euskararen erabilera Nafarroako administrazio publikoetan arautzen duena, eta aipatzekoa da Dekretu honek lehen aldiz ezarri duela Foru Administrazioaren hizkuntza planak egiteko beharra. Ildo beretik, Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutuari dagokio departamentuen artean koordinazio organo moduan aritzea, haiei aholkua ematea eta haiekin elkarlanean aritzea hizkuntza plangintza garatzeko.

Hizkuntza plangintzak Foru Administrazioaren egitura eta baliabideen ezagutza sakona eskatzen du, bereziki herritarrekiko komunikazioak tartean daudenean, horietan euskara zeharkakotasunez txertatzea baita zeregina. Zeharkakotasun horren helburua da departamentuetako langileek beraiek, zuzenean edo itzulpen zerbitzuak erabilita (izan Euskarabideko itzulpen atala, izan baliabide propioen bidez), haien jardunean hizkuntza kudeaketa egokia eginez zerbitzu elebiduna eskaintzeko urratsak ematea. Horretarako, langileen euskarazko prestakuntza eta hizkuntzen kudeaketa egokiari buruzko trebakuntza eta sentsibilizazioa ezinbestekoak dira.

Plangintza honetan Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako Departamentuak herritarrekin dituen harremani emango zaie lehentasuna, hauek modu zabalean ulertuz. Administrazio publikoa eta herritarraren artean gertatzen diren zuzeneko komunikazioez gain (aurrez aurrekoak edo telematikoak, ahoz zein idatziz), departamentuaren egoitzen hizkuntza paisaia, webguneak, tramite elektronikoak, sare sozialak, albistekak, komunikazio kanpainak edo argitalpenak ere kontuan hartuko dira hizkuntzen kudeaketa egokiaren ikuspegitik. Horretaz gain ere, departamentuak kontratazio

---

<sup>1</sup> Plan honek Nafarroako egoera soziolinguistikoa aintzat hartzen du (ikusi I. Eranskina), eta baita 2019-2023 planen ebaluazioko ondorioak ere (Ikusi II. Eranskina).

publiko bidez eskuordetzen dituen zerbitzuetan, sozietate publiko zein enpresen bidez, hizkuntzen kudeaketa egokia egiteko urratsak ere planifikatuko dira.

## **LEGE ESPARRUA**

### **LEGE MARKO OROKORRA**

Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako Departamentuaren Hizkuntza Plana diseinatzeko orduan kontuan hartu da Europa, Espainia eta Nafarroa mailan euskara babestu eta sustatzeko politikak abiatzeko arauak eta gomendioak daudela, bereziki herritarren eskubideak bermatzeari begira.

Europar Batasuneko arau markoari dagokionez, 2 dira nagusi:

- **Europako Batasunaren Oinarrizko Eskubideen Kartak** bere 22. artikuluan dio Batasunak aniztasun kultural, erlijioso eta linguistikoa errespetatzen duela.
- **Eskualdeetako eta Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutunak** ezartzen du hizkuntza horien babesak eta sustapenak laguntzen duela, Europako tradizio eta aberastasun kulturalaren mantentze eta garapenean. Espainiak 1992an gutuna berretsi zuen, Nafarroan euskarari erreferentzia eginez, eta jada 6 ebaluazioaldi egin ditu Europako Kontseiluak hizkuntza koofizialen egoera orokorraren gainean.

Bestalde, **Espainiako Konstituzioak** ezartzen du Atariko Tituluko 3. artikuluan, Gaztelania Estatu osoan izango dela ofiziala eta beste hizkuntzen ofizialtasuna Erkidego Autonomo bakoitzaren Estatutuetan arautuko dela. Espainiako hizkuntza ezberdinen aberastasuna kultura ondareztat hartzen da eta ondare horrek begirune eta babes bereziak izango ditu.

Azkenik, Nafarroako Foru Eraentza berrezarri eta hobetzeari buruzko **13/1982 Lege Organikoak** 9. artikuluan ezartzen du gaztelania dela Nafarroako hizkuntza ofiziala, eta euskarak ere izanen duela hizkuntza ofizial izaera Nafarroako eremu euskaldunetan, Foru lege baten bidez eremu horiek zehaztu eta euskararen erabilera ofiziala arautuko direlarik.

## **EUSKARAREN ERABILERARI BURUZKO ARAUDIA**

Nafarroako Foru Erkidegoan euskararen erabilera [18/1986 Foru Legeak, Euskarari Buruzkoa](#), arautzen du, eta lege honek hurrengo moldaketak izan ditu Nafarroako Parlamentuaren bidez:

- [2/2010 Foru Legea](#), otsailaren 23koa. Eremu mistoa zabaldu zuen 3 udalerrri gehituz.
- [4/2015 Foru Legea](#), otsailaren 24koa. Eremu ez-euskaldunean euskaraz ikasteko eskubideak zabaldu zituen.
- [9/2017 Foru Legea](#), ekainaren 27koa. Euskararen Legearen izena aldatu zuen gaztelaniazko testuan (“eusquera” erabiliz “vascuence” ordeztuz), 45 udalerriren eremuak aldatu zituen, herritarren hizkuntza eskubideak zabalduz, eta toki entitateei euskara ordenantzak egiteko eskumena aitortzen die.

Euskarari buruzko Foru Legeak 2. artikuluan ezartzen du gaztelania eta euskara Nafarroako berezko hizkuntzak direla, eta ondorioz, herritar orok duela hizkuntza horiek ezagutzeko eta erabiltzeko eskubidea. Ofizialtasunari dagokionez, euskara ofizialtzat arautzen da eremu euskaldunean. Horrek suposatzen du herritarrek eskubidea dutela administrazio publikoekin harremana aukeratzen duten hizkuntza ofizialean egiteko, eta administrazioek hori bermatzeko. Eremu misto eta ez-euskaldunean herritarrek eskubidea dute administrazio publikoetara euskaraz zuzentzeko.

Euskararen Legearen garapen gisa onartu zen [103/2017 Foru Dekretua](#), azaroaren 15ekoa, euskararen erabilera arautzen duena Nafarroako administrazio publikoetan, beren erakunde publikoetan eta menpeko dituzten zuzenbide publikoko entitateetan, eta arau honen 6. artikuluan agertzen da lehen aldiz hizkuntza plangintzaren beharra eta plangintza horretan Euskarabidearen koordinatzaile rola ere arautzen da.

Horretaz gain, 103/2017 Foru Dekretuak euskararen erabilera administrazio publikoetan eta eremuaren arabera arautzen du, funtsezko helburuetan laburbildu daitezkenak:

### **3. artikulua. Funtsezko helburuak.**

1. Foru dekretu honen funtsezko helburuak honako hauek dira:

- a) Eremu euskaldunean, ahalbidetzea bi hizkuntza ofizialetako edozein erabil daitezen lan-hizkuntza moduan Nafarroako administrazio publikoetan, beren erakunde publikoetan eta menpeko dituzten zuzenbide publikoko entitateetan, bai eta herritarrei zerbitzua emateko ere.
  - b) Eremu mistoan, gauzagarri egitea herritarrek duten eskubidea euskaraz nahiz gaztelaniaz zuzentzeko Nafarroako administrazio publikoengana, beren erakunde publikoengana eta menpeko dituzten zuzenbide publikoko entitateengana, bai eta beharrezkoak diren tresnak zehaztea ere ahalbidetzeko euskara eta gaztelania erabil daitezen herritarrei zerbitzua emateko; betiere, eremu horretako udalerrien errealitate soziolinguistikoarekin bat.
  - c) Eremu ez-euskaldunean, gauzagarri egitea herritarrek duten eskubidea euskaraz nahiz gaztelaniaz zuzentzeko Nafarroako administrazio publikoengana, beren erakunde publikoengana eta menpeko dituzten zuzenbide publikoko entitateengana, bai eta hori lortzeko tresnak zehaztea ere, eremuaren ezaugarri soziolinguistikoak kontuan hartuta.
1. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren zerbitzu zentraletan, funtsezko helburua da euskararen erabilera ahalbidetzea herritarrei zerbitzua emateko.

Zerbitzu zentralen honako definizioa ezartzen da: Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren zerbitzuetatik, herritar guztientzako arreta ematen dutenak, non kokatuta dauden kontuan hartu gabe.

Zeharka hizkuntza politikan eragina izan duten arauak ere daude:

- Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eta Foru Sektore Publiko Instituzionalari buruzko martxoaren 11ko [11/2019 Foru Legeak](#), IV. tituluan, Administrazioaren funtzionamendu elektronikolari buruzkoan, honako hau ezartzen du:

**69. artikulua.** *Nafarroako Gobernuaren web ataria.*

4. Nafarroako Gobernuaren web ataria gaztelaniaz eta euskaraz egonen da. Era berean, interes orokorrekoa dela jotzen bada, beste hizkuntza batzuetan ere emanen da informazioa.

- **5/2018 Foru Dekretuak**, otsailaren 28koa, Nafarroako biziguneen izenak erabiltzeko eta adierazpen grafikorako irizpideak ezartzen dituenak, Euskararen Legean Foru Komunitateko toponimoei buruz ezarritakoa garatzen du.
- Urtarrilaren 12ko 8/2020 Foru Dekretuak, Nafarroako Gobernuaren ikur ofiziala eta haren erabilera arautzen dituen urtarrilaren 27ko **4/2016 Foru Dekretua** aldatzen duenak, hizkuntzen ordena aldatu zuen Gobernuaren sinboloan.

## 2. Departamentuaren hizkuntza egoera


250/2023 Foru Dekretuaren arabera, Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako Departamentuaren egitura organikoa ezartzen duena, Departamentuak beteko ditu Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak gai hauetan esleituak dituen eskumenak:

- Garapen enpresariala kudeatzea.
- Nafarroako S4 Espezializazio Adimentsuaren Estrategia definitzea, eguneratzea, ezartzea, monitorizatzea eta haren jarraipena egitea.
- Aipatu estrategia horretan definitutako lehentasunak eta trantsizioak bultzatzea.
- Klusterrak sustatzea.
- Industria-jarduera sustatzea
- Lur industrialala sustatzea;
- Bultzatzea, enpresaren arloan, lehiakortasuna, ekintzailatza, enpresa talentua, kalitatea eta enpresen I+G+b.
- Plangintza eta kontrol energetikoa.
- Industrien eta meategien kontrola.
- Energia berriztagarriak bultzatzea.
- Nafarroako enpresen nazioartekotzea sustatzea.
- Barne merkataritza eta artisautza antolatzea eta sustatzea.
- Kontsumoa eta arbitrajea, eta indarra duten xedapenetan ematen zaizkion gainerako eskudantziak.

Eskumen hauek gauzatzeko, 250/2023 Foru Dekretuak Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako Departamentuaren ondoko egitura organikoa ezartzen du:



## Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako Departamentuaren egitura organikoa



Iturria: Euskarabidea.

Jarraian departamentuaren egoeraren laburpena adieraziko da, hizkuntzaren ikuspegitik adierazgarria den informazioa eskainiz:

### LANGILEAK

Departamentuko langileen euskara ezagutzaren datura hurbiltzeko, plantilla organikoan hizkuntza eskakizuna (HE) esleiturik duten lanpostuen datua dugu, langile guztien euskara ezagutzaren datua ez baita momentuz modu sistematikoan jasotzen. Kontuan hartu behar da argitaratu den azken plantilla organikoa 2022. urtekoa dela, eta hortaz ez direla Gobernu aldaketatik eratorritako egiturazko moldaketak erabat jasotzen (datua hurrengo urteetako plantilla organikoak argitaratzearekin batera findu ahal izango da).

2022ko plantilla organikoaren araberako hizkuntza eskakizunak

Zuzendaritza edo unitatea	Lanpostu guztiak			Atalburutzak eta bulegoburutzak			Oinarrizko lanpostuak		
	Kop	HE	%	Kop	HE	%	Kop	HE	%
Kontseilaritza eta Kabinetea	4	0	0	0	0	0	0	0	0
Enpresen Sustapenerako Zuzendaritza Nagusia	44	0	0	15	0	0	25	0	0
Energia, Enpresa I+G+b eta Ekintzaitza Zuzendaritza Nagusia	47	0	0	13	0	0	30	0	0
Merkataritza eta Kontsumo Zuzendaritza Nagusia	17	0	0	3	0	0	12	0	0
Idazkaritza Tekniko Nagusia	18	0	0	7	0	0	10	0	0
<b>Guztira</b>	<b>130</b>	<b>0</b>	<b>0</b>	<b>38</b>	<b>0</b>	<b>0</b>	<b>77</b>	<b>0</b>	<b>0</b>

Iturria: Funtzio Publikoa.

Langileen ezagutza datura hurbiltzeko beste bide bat euskarazko prestakuntza datuak aztertzea da. Jarraian Euskarabideko Prestakuntza Ataleko datuak aurkezten dira, Gobernuko langileei dagokienez eta prestakuntza beste bide batzuetatik ere jaso dezaketela kontuan hartuz:

Nafarroako Gobernuko langileen datuak ikasturteka (2019-2022)

		2019-2020	2020-2021	2021-2022
<b>Matrikulazio datuak</b>	Eskaeren datu orokorra	669	561	543
	Plantilla osoaren %	% 2,7	% 2,2	% 2,2
	Onartuak	449	413	446
	Plantilla osoaren %	% 1,9	% 1,7	% 1,9
	Plazarik lortu ez duten langileen %	% 33	% 26	% 18
<b>Trebatutako langileak</b>	Aurrera eramandako ikastaro espezifikoetan parte hartu dutenak (administrarientzako ikastaroa, harrera nola egin...)	50	91	14
<b>Ikastaroetarako baimena duten langileak</b>	Kopuru orokorra	394	225	233
	Onartutakoen %	% 87,7	% 54,8	% 50
<b>Nafarroako Gobernutik diru-laguntza jasotzen duten langile publikoak</b>	Konpentsazioa jaso duten pertsona kopurua	11	11	15

Iturria: Euskarabideko Prestakuntza Atala.

## HERRITARREKIKO ETA ERAKUNDEEKIKO KOMUNIKAZIOAK

Ahozko komunikazioari dagokionez, hauek dira Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako Departamentuan identifikatu diren lehentasunak:

- Aurrez aurreko ahozko arreta ematen duten guneak:
  - Kontsumo eta Arbitraje Zerbitzuaren erregistro bulegoa.
  - Bestelako arretaguneak.

- Arretarako telefono edo aplikazio telematiko bidezko zerbitzu nagusiak:
  - Kontsumo arretarako telefonoak, Departamentuko telefono orokorra: IDENA (Nafarroako Geo ataria aplikazioa).
  - Bestelako Zerbitzuak.

Idatzizko komunikazioari dagokionez, jarraian departamentuko webgune, tramite elektroniko eta sare sozialen egoera adieraziko da. Komunikazio bide nagusi eta orokor hauetaz gain, Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako Departamentuak honako tresna edo euskarriak ere erabiltzen ditu herritar eta erakundeekin komunikatzeko (hauen hizkuntza egoera momentuz jaso ez bada ere, jarraian zerrendatzen dira plangintzan ere landuko direlako):

- Komunikazio kanpainak.
- Eskutitzak eta jakinarazpenak.
- Bestelako idazkiak.

## WEBGUNEAK

Gobernuko webguneen arduradunen irizpideei jarraituz, Nafarroako Gobernuko webguneak bi multzo nagusitan bereizten dira:

- Webgune korporatiboak: Administrazio Publikoek legez zerbitzu telematikoak eskaintzeko izan behar dituzten webguneak (unitate espezifikoen esku daudenak, baina hein handi batean departamentuek bidalitako informazioaz elikatzen direnak), hauek dira:
  - [Nafarroa.eus](http://Nafarroa.eus) ataria
  - [Gobernu irekia](#)
  - [Nafarroako turismoa](#)
  - [Kontratazioaren ataria](#)
- Departamentuetako bestelako webguneak: departamentu bakoitzak bere ardurapean kudeatzen dituen webguneak.

Jarraian Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako Departamentuaren webgune nagusien egoera adierazten da:

Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako Departamentuko webgune nagusien egungo hizkuntza egoera

Webgune nagusiak	Izaera	Webgunearen kudeatzailea	Hizkuntza egoera
Nafarroa.eus-eko Enpresa eta Profesionalak eta Kontsumoa atalak	Korporatiboa	Navarra.es Atariaren Atala	Oro har ele bitan, eguneratu gabe
<u>S4 Nafarroa</u>	Espezifikoa	Departamentua	Oro har ele bitan
<u>Nafarroako gobernu informazio energetikoa</u>	Espezifikoa	Departamentua	Ele bitan
<u>Nafarroako Nazioarteko Plana</u>	Espezifikoa	Departamentua	Gazteleraz
<u>Trantsizio energetikoa Nafarroan</u>	Espezifikoa	Departamentua	Ele bitan
<u>Navarraemprende</u>	Espezifikoa	Cein	Gazteleraz

Iturria: Euskarabidea.

## TRAMITE ELEKTRONIKOAK

Foru Administrazioarekin ematen den erlazio administratibo nagusia tramite elektronikoen bidez gauzatzen da, eta bi multzotan banatzen dira: herritarrei zuzendutakoak (nafarroa.eus atarian integratuak daude) eta toki entitateei zuzendutakoak (webgune espezifiko batean daude, langile publikoei zuzendutako tramiteekin batera).

Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako Departamentuko herritarrekiko tramite elektronikoen egungo hizkuntza egoera

Tramite elektronikoak					
Urte osokoak			Aldikakoak (egungo datuak)		
#	Euskaratuta eta eguneratuta	%	#	Euskaratuta eta eguneratuta	%
82	44	% 53,65	19	0	0

Iturria: Euskarabidea.

Toki entitateei zuzendutako tramiteei dagokienez, Hizkuntza Plana onartzeko momentuan tramite hauek dituen plataformaren migrazioa bukatu da, elebitasuna bermatuz eta iragazkiak ahalbidetuz. Plangintza honetan zehar, hortaz, departamentu bakoitzari dagozkion tramiteen identifikazioa eta hauen itzulpenak bideratuko dira.

## SARE SOZIALAK

Departamentuko sare sozial guztien azterketa egin da, sare bakoitzeko azken 15 argitalpenak aztertuz.

Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako Departamentuko sare sozialen egungo hizkuntza egoera

Kontuaren izena	Sare Soziala	Kontu mota	Egungo egoera
<i>S4 Nafarroako Garapena</i>	<i>Instagram</i>	<i>Sektoriala</i>	<i>Oro har gaztelaniaz</i>
<i>S4 Nafarroako Garapena</i>	<i>Youtube</i>	<i>Sektoriala</i>	<i>Oro har gazteleraz</i>
<i>S4 Nafarroako Garapena</i>	<i>Linkedin</i>	<i>Sektoriala</i>	<i>Oro har ele bitan</i>
<i>Industria Nafarroa</i>	<i>Twitter</i>	<i>Sektoriala</i>	<i>Oro har ele bitan/gazteleraz</i>
<i>Industria Nafarroa</i>	<i>Youtube</i>	<i>Sektoriala</i>	<i>Oro har gazteleraz</i>
<i>Industria Nafarroa</i>	<i>Linkedin</i>	<i>Sektoriala</i>	<i>Gazteleraz</i>

Iturria: Euskarabidea.

## ITZULPEN ZERBITZUA

Departamentuak baliabide propioen bidez ele biko testuak ekoizteko zailtasunak dituenean, departamentuak Euskarabideko Itzulpen Atalari bidaltzen dizkio itzulpen eskaerak, Itzulpenflow plataformaren bidez. Jarraian eskaera hauen bilakaera adierazten da:

Nafarroako Gobernuko itzulpen eskaerak (2019-2022)

Urtea	Eskaeren kopurua	Hitz kopurua
2019	1788	2.085.458
2020	2853	3.330.041
2021	3786	5.743.482
2022	3240	4.367.213

Iturria: Euskarabidea.

## HIZKUNTZA PAISAIA

Departamentuko hizkuntza paisaia egoitzaka aztertu da, egoitza batean unitate ezberdinak egon daitezkeela kontuan hartuz.

Aztertutako Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako Departamentuko egoitzak

Departamentua	Egoitza kopurua (EK)	Aztertutako egoitzak (AE)	Hizkuntza eremua					
			Euskalduna		Mistoa		Ez euskalduna	
			EK	AE	EK	AE	EK	AE
Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako Departamentua	3	3	0	0	3	3	0	0

Iturria: Euskarabidea.

Aztertutako Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako Departamentuko egoitzen analisia

Hizkuntz paisaiaren egoera	Aztertutako egoitzak	%
Euskaraz		
Oro har euskaraz		
Ele bitan	2	% 75
Oro har ele bitan	1	% 25
Oro har gaztelaniaz		
Gaztelaniaz		

Iturria: Euskarabidea.

Departamentuan 3 egoitza daude, hortaz ez da egoitzarik falta baten hizkuntza paisaiaren azterketa egiteko.

## KONTRATAZIO PUBLIKOAK ETA HITZARMENAK

Ohikoa da Nafarroako Gobernuak herritarrekiko zerbitzu batzuk kontratazio publiko edo hitzarmenen bidez eskaintzea, eta baita sozietate edo fundazio publikoen bidez ere. Kasu hauetan, hizkuntzaren ikuspegitik, ele biko zerbitzua eskaintzea plegu edo kontratuetan islatzen da, eta hori izango da aztergai.

### 3. Departamentuaren 2023-2027 ekintza plana

Aurreko plangintzaldiko ibilbidea aintzat hartuz eta erronketan aurrera egiteko, Departamentuetarako ekintza plan orokor bat proposatu du Euskarabideak, Departamentuetako bakoitza bere egoera konkretutik abiatzeko. Jarraian duzun plangintza Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako Departamentuarentzako definitutakoa da.

Planaren misioa herritarrei zuzendutako zerbitzuetan ele biko zerbitzua ematea da, ahozkoa zein idatzizkoa, planifikaturiko eta sistematizaturiko lan ildo bat finkatuz eta euskara kalitatezko zerbitzu publikoaren berariazko elementu gisa balioetsiz.

103/2017 Foru Dekretuak ezartzen dituen helburuek epe luzerako jarduketa behar dute. Progresiboki aurrera eginez joateko, 7 helburu estrategiko proposatzen dira, hiru ardatzetan antolatuta. Helburu horiek aurreko plangintzako helburuei jarraipena ematen diote. Horra:

Ezagutza	Erabilera	Kudeaketa
<ul style="list-style-type: none"><li>•1. Hizkuntza eskakizuna duten lanpostuen kopurua emendatzea zerbitzua euskaraz emateko.</li><li>•2. Langileak gaitzea zerbitzua euskaraz emateko.</li></ul>	<ul style="list-style-type: none"><li>•3. Herritarrekiko ahozko harremanak ele biz izateko neurriak hartzea.</li><li>•4. Herritarrekiko idatzizko harremanak ele biz izateko neurriak hartzea.</li><li>•5. Hizkuntza paisaia ele bitan jartzea.</li><li>•6. Herritarrari zerbitzua ematen dioten kontratu publikoetan, hitzarmenetan eta enkarguetan hizkuntza irizpideak ezartzea.</li></ul>	<ul style="list-style-type: none"><li>•7. Euskararen kudeaketa estrategikorako egituraketa, formazioa eta sentsibilizazioa lantzea.</li></ul>

Jarraian, 2023-2027rako ekintza plana jasotzen da:



# EKINTZA PLANA

## 1. Lan ardatza: Ezagutza

1. Helburu estrategikoa: HIZKUNTZA ESKAKIZUNA DUTEN LANPOSTUEN KOPURUA EMENDATZEA ZERBITZUA EUSKARAZ EMATEKO							
Helburu operatiboa	Ekintzak	Arduraduna	Epea				
			23	24	25	26	27
1.1. Lehenengo plangintzaldiko hizkuntza eskakizunen proposamena onartzea	2022ko urtarrilaren 26an sinatutako hizkuntza eskakizunak esleitzeko proposamenaren negoziazioa Funtzio Publikoko Negoziazio Mahaian (103/2017 FDko 7. xedapen gehigarria)	Funtzio Publikoko Zuzendaritza Nagusia (FPZN)					
	Sindikatuekin negoziatu ondoren, 195/2022 Foru Aginduaren arabera hizkuntza eskakizuna ezarriko den plaza elebidunen zehaztapena	Departamentua, Euskarabidea eta FPZN					
	Hizkuntza eskakizuna ezartzea erabaki den plazen inguruko txosten teknikoak idaztea	Euskarabidea					
	Txosten teknikoen azterketaren ondoren, Plantilla Organikoan ezarriko diren plaza elebidunen behin betiko onarpena	Departamentua					
	Plazen proposamena Funtzio Publikoari bidaltzea	Departamentua					
	Plantilla Organikoaren moldaketarako Foru Dekretuaren espedientearen izapidea egitea	FPZN					
1.2. Lanpostu berriak sortzerakoan dagokion hizkuntza eskakizuna esleitzea	-Plaza berriak sortzerakoan -Proiektu zehatz baterako lanpostu estrukturalen zehaztapenean -Burutzak betetzeko deialdietan	Departamentua, Euskarabidea eta FPZN					
1.3 HE duten lanpostuak amortizatzean, HE mantentzea	Hizkuntza eskakizunak mantentzeko ahalegina egitea. (Eskakizuna duen lanpostu bat kendu behar den egoeretarako Euskarabideko txostena jaso beharra)	Departamentua, Euskarabidea eta FPZN					

1.4 Hizkuntza eskakizunen proposamen berria prestatu eta onartzea	Hizkuntza nahitaezkotasunarekiko lehenetsunezko unitateen identifikazioa	Departamentua eta Euskara Administrazio Publikoetan Garatzeko Zerbitzua (Euskarabidea)						
	Plantilla Organikoan sartzeko plaza elebidun kopurua zehazteko proposamen-txostena egitea	Departamentua eta Euskarabidea						
	Proposamena gainbegiratu eta beharrezko ekarpenak egin eta gero, Funtzio Publikoari txostenaren bidalketa egitea sindikatuarekin negoziatzeko	Departamentua						
	Proposamenaren negoziazioa Funtzio Publikoko Negoziario Mahaian (103/2017 FDKo 7. xedapen gehigarria)	Departamentua, Euskarabidea eta FPZN						
	Sindikatuarekin negoziatu ondoren, ezarritako prozeduraren arabera hizkuntza eskakizuna ezarriko den plaza elebidunen zehaztapena	Departamentua, Euskarabidea eta FPZN						
	Hizkuntza eskakizuna ezartzea erabaki den plazen inguruko txosten teknikoak idaztea	Euskarabidea						
	Txosten teknikoaren azterketaren ondoren, Plantilla Organikoan ezarriko diren plaza elebidunen behin betiko onarpena	Departamentua						
	Plazen proposamena Funtzio Publikoari bidaltzea	Departamentua						
	Plantilla Organikoaren moldaketarako Foru Dekretuaren espedientearen izapidea egitea	FPZN						
<b>Adierazleak:</b>								
<ul style="list-style-type: none"> <li>- Urteroko plantilla organikoan Departamentuan indarrean dauden HEak.</li> <li>- Aurreko planeko proposamena onartu da: bai/ez</li> <li>- Proposamen berria egin eta onartu da: bai/ez</li> </ul>								

## 2. Helburu estrategikoa: LANGILEAK GAITZEA ZERBITZUA EUSKARAZ EMATEKO

Helburuak	Ekintzak	Arduraduna	Epea				
			23	24	25	26	27
2.1 Departamentuaren urteko euskara prestakuntza eta trebakuntza plana prestatu	Prestakuntza eta trebakuntza plana diseinatzeko fitxa <sup>2</sup> bete.	Euskarabidea eta Departamentua					
2.2 Prestakuntza eta trebakuntza plana ezarri eta jarraipena egin	Prestakuntza eta trebakuntza plana aurrera eraman.	Departamentua					
	Prestakuntza eta trebakuntza planetik eratorritako langileentzako baimenak bermatzea.	Departamentua					
	Prestakuntza eta trebakuntza planaren jarraipena egin.	Departamentua eta Euskarabidea					
<b>Adierazleak:</b> <ul style="list-style-type: none"> <li>– Prestakuntza eta trebakuntzarako Departamentutik izena eman duten langile kopurua.</li> <li>– Baimena jaso duten langile kopurua.</li> <li>– Euskara ziurtagiria lortu duten langileak.</li> </ul>							

<sup>2</sup> Euskarabideak Departamentuaren eskura jarriko du fitxa eredu, lan saio batean elkarrekin betetzeko

## 2. Lan ardatza: Erabilera

### 3. Helburu estrategikoa: HERRITARREKIKO AHOZKO HARREMANAK ELE BIZ IZATEKO NEURRIAK HARTZEA

Helburuak	Ekintzak	Arduraduna	Epea				
			23	24	25	26	27
Herritarra euskaraz artatzeko prozedurak ezarri	Zuzeneko ahozko arreta modu ohikoan ematen duten guneak identifikatu (aurrez aurre zein telefonoz) eta gune horien hizkuntza erabilera aztertu.	Departamentua					
	Herritarrak hizkuntza hautua egiteko aukera emateko prozedura adostu <sup>3</sup>	Departamentua eta Euskarabidea					
	Prozedura indarrean jarria: langileei prozeduraren berri eman eta martxan jarri.	Departamentua					
	Ahozko harrera egiten duten langileen artean zerbitzu hizkuntzaren erregistroa sortu.	Departamentua					
Langileak sentsibilizatu eta trebatu ahozko arreta emateko	Langile guztiei sentsibilizazio pilulak bidali <sup>4</sup> hizkuntza eskubide, eta hizkuntza eta kalitatearen harremanari buruzkoa	Euskarabidea					
	Herritarrei ele biko erantzuna emateko ahozko hizkuntza irizpideen gida eman <sup>5</sup> eta erabiltzeko trebatu.	Euskarabidea					
	Langileak trebatzeko Aldahitz metodologia <sup>6</sup> aurrera eramatea hautatutako unitate batzuetan.	Departamentua eta Euskarabidea					
Kanpainak egin herritarrek euskarazko zerbitzua	Zerbitzua euskaraz eman dezaketen langileak identifikatzeko euskarriak hedatu.	Departamentua eta Euskarabidea					

<sup>3</sup> Euskarabideak "Herritarrak artatzeko protokolo" proposamena dauka eta Departamentuak hori bere errealitatera egokituko du.

<sup>4</sup> Euskarabideak pilulak prestatuko ditu, Departamentuak heda ditzan.

<sup>5</sup> Euskarabideak gida egingo du, Departamentuak hedatzeko.

<sup>6</sup> Euskarabideak eramango du aurrera metodologia hau Departamentuan.

baliatzeko	Herritarrek zerbitzua euskaraz jasotzeko komunikazio kanpaina <sup>7</sup> egin.	Euskarabidea					
<b>Adierazleak:</b> <ul style="list-style-type: none"> <li>– Adostutako prozedura indarrean bai/ez</li> <li>– Zerbitzu hizkuntzaren erregistroa sortuta bai/ez.</li> <li>– Hizkuntza irizpideen gida banatuta bai/ez</li> <li>– Bidalitako sentsibilizazio pilula kopurua.</li> <li>– Banatutako identifikazio euskarri kopurua</li> </ul>							

#### 4. Helburu estrategikoa: HERRITARREKIKO IDATZIZKO HARREMANAK ELE BIZ IZATEKO NEURRIAK HARTZEA

Helburuak	Ekintzak	Arduraduna	Epea				
			23	24	25	26	27
Komunikazio orokorrak euskaraz ere eskaini: aldi berean eta informazio eguneratuarekin	5 webgune nagusiak identifikatu eta horiek euskaraz ere eskaini	Departamentua eta Euskarabidea					
	Sare sozialek informazioa euskaraz emateko neurriak hartu	Departamentua eta Euskarabidea					
	Tramite elektronikoak (egonkorrak, aldikakoak eta administrazio publikoei zuzendutakoak) euskaraz eta eguneratuta eskaini.	Departamentua eta Euskarabidea					
	Komunikazio kanpainak elebidun eta euskarri bakarra erabiliz egin (ikus entzunezkoak, kartelak...)	Departamentua eta Euskarabidea					
	Argitalpenak ele bitan egin (euskarri bakarrean edo bi euskarritan).	Departamentua eta Euskarabidea					
Banakako komunikazioak (herritar zein erakunde) ele bitan gauzatu	Herritar edo erakunde jakin bati zuzendutako mezuak (sms, isun, gutun...) edo bestelako jakinarazpenak bi hizkuntzatan bidali.	Departamentua eta Euskarabidea					

<sup>7</sup> Euskarabideak diseinatuko du kanpaina, eta Departamentuak horren hedapena egingo du: kartelak, sare sozialak...

	Herritar edo erakunde batengandik jasotako komunikazioak euskaraz direnean, hizkuntza hautu hori errespetatzeko neurriak hartu.	Departamentua					
<b>Adierazleak:</b>							
<ul style="list-style-type: none"> <li>- Euskaraz dauden tramiteen ehunekoa: herritarrekiko eta toki entitateekiko</li> <li>- 5 webgune nagusien euskarazko edukien ehunekoa.</li> <li>- Sare sozialetako euskarazko publikazioen ehunekoa</li> <li>- Euskaraz dauden kanpainen ehunekoa</li> <li>- Eskatutako itzulpen kopurua</li> </ul>							

5. Helburu estrategikoa: HIZKUNTZA PAISAIA ELE BITAN JARTZEA							
Helburuak	Ekintzak	Arduraduna	Epea				
			23	24	25	26	27
Hizkuntza paisaiaren elementuak (egoitzetako errotulazioa, arropak, ibilgailuak...) ele bitan egongo direla bermatzea.	Hizkuntza paisaiari buruzko irizpideak hedatzea.	Departamentua eta Euskarabidea					
	Departamentuko egoitzen (eraikina, ibilgailuak, jantziak...) azterketa eta berrikuspen periodikoa egitea.	Departamentua eta Euskarabidea					
	Aldatu beharreko elementuen proposamen txostena egin	Euskarabidea					
	Beharrezko elementuak egokitzea	Departamentua					
Eraikin berrietan edo eraikinen zaharberritzeetan hizkuntza paisaia elebiduna bermatu	Eraikuntza eta zaharberritze obretan hasierako proiektutik hizkuntza paisaia ele bitan izateko neurriak hartzea: Euskarabidearekin lanketa egin, txostena osatu eta gauzatu.	Euskarabidea eta Departamentua					
<b>Adierazleak:</b>							
<ul style="list-style-type: none"> <li>- Aztertutako egoitza kopurua eta portzentajea</li> <li>- Aztertutako horietako hizkuntza irizpideen betetze maila</li> </ul>							

**6. Helburu estrategikoa: HERRITARRARI ZERBITZUA EMATEN DIOTEN KONTRATU PUBLIKOETAN, HITZARMENETAN ETA ENKARGUETAN HIZKUNTZA IRIZPIDEAK EZARTZEA**

Helburuak	Ekintzak	Arduraduna	Epea				
			23	24	25	26	27
Herritarrei zerbitzua ematen dioten kontratu nagusietan hizkuntza irizpideak jartzeko bidea egitea.	Herritarrei zerbitzua ematen dioten kontratu nagusiak identifikatu	Departamentua					
	Kontratu horien hizkuntza egoera aztertu: ematen den zerbitzuaren hizkuntza inpaktua, zerbitzua elebizi emateko hartutako neurriak...	Euskarabidea eta Departamentua					
	Elebiko zerbitzua hobetzeko proposamen txostena egin	Euskarabidea					
	Proposamenak aztertu eta kontratuetan txertatu	Departamentua					
Erakundeentzako dirulaguntza deialdietan hizkuntza irizpideak jartzeko bidea egitea.	Erakundeentzako dirulaguntza deialdi nagusiak identifikatu.	Departamentua					
	Dirulaguntza horien oinarriak aztertu, hizkuntza klausulen egoera identifikatzeko (diruz lagundutako ekimenen hizkuntza, horiek komunikatzeko komunikazio euskarrien hizkuntza...).	Euskarabidea eta Departamentua					
	Hizkuntza klausulak hobetzeko proposamen txostena egin	Euskarabidea					
	Proposamenak aztertu eta dirulaguntzen oinarrietan txertatu	Departamentua					
<b>Adierazleak:</b>							
<ul style="list-style-type: none"> <li>- Herritarrari zerbitzua ematen dioten kontratu edo hitzarmen nagusietan hizkuntza klausulak dituzten kontratu kopurua.</li> <li>- Erakundeentzako dirulaguntza deialdi nagusietako oinarrietan hizkuntza klausulak dituzten dirulaguntza kopurua.</li> </ul>							

### 3. Lan ardatza: Kudeaketa

#### 7. Helburu estrategikoa: EUSKARAREN KUDEAKETA ESTRATEGIKORAKO EGITURAKETA, FORMAZIOA eta SENTSIBILIZAZIOA LANTZEA

Helburuak	Ekintzak	Arduraduna	Epea				
			23	24	25	26	27
Departamentuan egitura sortzea eta baliabideak (pertsonal eta ekonomikoak) esleitzea planaren inplementazio eta jarraipenerako	Plana inplementatu eta jarraipena egiteko Departamentuko lantaldea (departamentuko planaren arduraduna eta solaskideak, eta Euskarabideko arduradun eta teknikariak) eta martxan jartzea eta modu iraunkorrean jardutea.	Departamentua eta Euskarabidea					
	Dagokionean, departamentuko arduradunak Euskarabideko Gobernu Kontseiluan parte hartzea.	Departamentua					
	Departamentuarteko mahaian parte hartzea, dagokionean.	Departamentua					
Departamentuko langileak sentsibilizatzea eta hizkuntza kudeaketan, soziolinguistikan eta hizkuntza eskubideetan formatzea	Euskarabideak langileak euskararen inguruan sentsibilizatu eta formatzeko antolatuko dituen saioetan parte hartzea sustatzea.	Departamentua					
	Euskarabideak sortuko dituen informazio eta sentsibilizazio materialen zabalkundean laguntzea.	Departamentua					
<b>Adierazleak</b> -Egiturak gauzatuak bileren akta kopurua - Euskarabideak antolatutako saio kopurua eta Departamentuaren parte hartze maila							



# 4. Planaren jarraipena eta ebaluazioa

## HIZKUNTZA PLANEKO ERAGILEAK

### EUSKARABIDEKO GOBERNU KONTSEILUA

Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutuak bere egitura organikoan du Gobernu Kontseilua, zeina batzorde betearazle gisa arituko den hizkuntza planen alorrean.

Gobernu Kontseiluak ahalmen hauek ditu:

- a) Erakunde autonomoaren aurrekonturako aurreproiektuaren proposamena urtero onestea.
- b) Urteko kudeaketa plana eta prestatzen diren urteko txostenak onestea.
- c) Plan estrategikoak onestea, Kontseiluak ezarritako aldizkakotasunarekin.
- d) Erakunde autonomoaren zuzendaritza funtzioak kontrolatu eta gainbegiratzea.
- e) Nafarroako Gobernuko departamentuetan aplikatuko den hizkuntza politikaren arau bidezko garapena koordinatzea.

Osaera:

- a) Kontseiluburua: Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako Departamentuko titularra.
- b) Kontseiluburuordea: Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutuko zuzendari kudeatzailea.
- c) Bokalak: departamentu bakoitzaren ordezkari arituko den pertsona bat, kasuan kasuko departamentuko kontseilariak zuzendari nagusien edo, erakunde autonomoei dagokienez, zuzendari kudeatzaileen artean izendatua.
- d) Idazkaria: Euskararen Sustapenaren eta Plangintzaren Zerbitzuko zuzendaria.

## **DEPARTAMENTUARTEKO KOORDINAZIO MAHAIA**

DepartamentuarTEKO bilera teknikoak deituko dira hizkuntza politikaren zeharkakotasun printzipioa gauzatzeko. Batzorde horretan parte hartuko dute, batetik, departamentu bakoitzeko arduradun eta solaskideek eta, bestetik, Euskarabideko Euskara Administrazio Publikoetan Garatzeko Zerbitzuko arduradun eta teknikariek. Bilerak deituko dira hizkuntza politikari buruzko prestakuntzarako, jardunbide egokiak trukatzeko, jarduketa-irizpide komunak ezartzeko, etab.

## **INDUSTRIAKO ETA ENPRESEN TRANTSIZIO EKOLOGIKO ETA DIGITALERAKO DEPARTAMENTUKO LANTALDEA**

Departamentuko antolamendu eta jarraipenari dagokionez, honako figura hauek jasotzen dira:

- Hizkuntza planaren arduraduna.
- Departamentuaren barnean hizkuntza plana gauzatzeko izendatutako solaskideak.
- Euskarabideko Euskara Administrazio Publikoetan Garatzeko Zerbitzuko, arduradun, teknikari eta aholkulariak.

Lantaldeak hizkuntza planetik eratorritako beharrak jorratzeko behar bezain beste bilera egingo ditu.

## **DEPARTAMENTUKO HIZKUNTZA PLANAREN ARDURADUN ETA SOLASKIDEAK**

- Hizkuntza planaren arduraduna Euskarabideko Gobernu Kontseiluan Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako Departamentuko bokal bezala aritzen dena izango da, eta Departamentuan garatu beharreko eginkizun hauek ditu:
  - Departamentuko hizkuntza planean jasotako ekintzak bultzatu, gidatu eta koordinatzea, bere zerbitzuko nahiz Euskarabideko teknikariek elkarlanean.

- Departamentuan hizkuntza gaietan erreferentziako solaskide izatea.
  - Ekimen edo behar berriak identifikatzea.
  - Planaren jarraipena eta ebaluazioa.
  - Departamentuari hizkuntza planaren nahiz Euskararen Plan Estrategikoaren garapenaren berri ematea.
- Arau orokor gisa, Kontseiluan Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako Departamentuko zuzendaritza nagusi eta erakunde autonomo bakoitzeko solaskide bana izendatuko da planaren ardatzak gauzatzeko.

## **EUSKARABIDEKO EUSKARA ADMINISTRAZIO PUBLIKOETAN GARATZEKO ZERBITZUKO ARDURADUN ETA TEKNIKARIAK**

- Euskara Administrazio Publikoetan Garatzeko Zerbitzuko arduradun eta teknikariek izanen dute hizkuntza plana bultzatu eta koordinatzeko ardura.
- Zerbitzu horretako teknikariek eginkizun hauek izanen dituzte:
  - Hizkuntza planean bildutako ekintzak departamentuan ezartzen laguntzea.
  - Planaren arduradunari eta departamentuko titularrari laguntza eta aholkularitza ematea hizkuntza politikarekin zerikusia duten gai guztietan.
  - Beste departamentuekiko koordinazioa ezartzea.
  - Departamentuko plantillari eta komunikazioei buruzko diagnostikoak egitea.
  - Planaren arduradun eta solaskideei behar duten prestakuntza eskaintzea.

## **JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA**

Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako Departamentuko hizkuntza planeko helburuen betetze mailaren jarraipena eta ebaluazioa horrela egingen da:

## **BILEREN PLANIFIKAZIOA**

Plana behar bezala gauzaten ari dela bermatzeko eta lanaren sistematizazioa ziurtatzeko, planaren egitura osatzen duten organoen lan eta koordinazio bileren hiruhileko plana ezarriko da. Horretarako, hiru hilean behin, gutxienez, departamentuko lan taldea bilduko da, eta urtean behin Euskarabideko Gobernu Kontseilua deitu ahalko da.

## **JARRAIPEN TXOSTENA**

Plangintzaldiaren erdialdean jarraipen txostena egingen da. Bertan zehaztuko da zein den hizkuntza planaren betetze maila, egindako lanaren gainean kontu emateko, bai barnera begira (Euskarabideko Gobernu Kontseilua), bai kanpora begira (Euskararen Nafar Kontseilua) zein, oro har, herritarrei begira (Gardentasunaren Ataria).

## **EBALUAZIOA**

Prozesuaren eta erdietsitako emaitzen ebaluazio kuantitatibo eta kualitatiboa egingen da planaren indarraldiaren bukaeran, departamentuetako ikuspegi orokorra batuz eta adierazleen bidez datuak erkatuz.

# 5. Eranskinak

## 1. ERANSKINA EUSKARAREN EGOERA NAFARROAN

### DATU DEMOGRAFIKO ETA SOZIOLINGUISTIKOAK

#### DATU DEMOGRAFIKOAK

NASTAT-Nafarroako Estatistika Erakundearen arabera, Nafarroak 2022an 664.117 bizilagun zituen. Hurrengo taulan hizkuntza eremu bakoitzean egon den biztanleriaren bilakaera ikus daiteke (2017 urtean Euskararen Legearen aldaketaren ondorioz hizkuntza eremuak birdefinitu ziren, eta horrek eragin esanguratsua izan du aurrerantzean adieraziko diren kopuruen bilakaeran):

Nafarroako biztanleriaren bilakaera eremuka 2005-2022

Eremua	2005		2010		2015		2020		2022	
	Biztanleak	%	Biztanleak	%	Biztanleak	%	Biztanleak	%	Biztanleak	%
Nafarroa	593.472	100	636.924	100	640.476	100	661.197	100	664.117	100
Euskalduna	56.828	9,5	59.257	9,3	58.534	9,1	58.861	8,9	59.090	8,9
Mistoa	321.908	54,24	347.148	54,5	365.536	57	420.542	63,6	421.767	63,5
Ez-euskalduna	214,736	36,18	230.519	36,1	216.406	33,7	181.794	27,5	183.260	27,6

Iturria: NASTAT-Nafarroako Estatistika Erakundea.


#### DATU SOZIOLINGUISTIKOAK

NASTAT-Nafarroako Estatistika Erakundeak euskarari buruz jasotako datuen helburu nagusia da Nafarroan bizi diren 3 urte edo gehiagoko biztanleen euskarazko hizkuntza gaitasuna aztertzea, pertsonen zenbait ezaugarri demografiko aintzat hartuta, hala nola sexua, adina, nazionalitatea, jaioterria eta biziterria.

Euskararen ezagutza hizkuntza gaitasunaren bidez aztertzen da. Horretarako, hiru kategoria ezartzen dira: euskalduna, euskaldun hartzailea eta ez-euskalduna. Euskaldunak euskaraz ondo ulertzen eta hitz egiten duten pertsonak dira; euskaldun hartzaileek euskaraz nekez ulertu eta hitz egiten dute, edo ondo ulertzeko gai dira, baina ez dute euskaraz egiten edo nekez egiten dute; eta, ez-euskaldunek ez dute euskaraz hitz egiten, ezta ulertzen ere.

2021. urtean, 3 urte edo gehiagoko euskaldunen proportzioa % 14,9koa zen, euskaldun hartzaileena % 11,6koa eta ez-euskaldunena % 73,5koa. 1986. urtearekin konparatuz gero, euskaldun kopuruak ia ehuneko 4,7 puntuko igoera izan du, eta euskaldun hartzaileen kopuruak ehuneko 7,5 puntukoa.

Nafarroako 3 urte edo gehiagoko biztanleak hizkuntza gaitasunaren arabera<sup>8</sup>



Iturria: NASTAT-Nafarroako Estatistika Erakundea.

Jarraian Nafarroako datu soziolinguistikoaren gurutzatzea adierazten da:


<sup>8</sup> 1986. urteari dagozkion datuak Nafarroako Biztanleen Erroldan dute jatorria, 1991., 2001. eta 2011. urteei dagozkienek Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Erroldan, eta 1996. urteari dagozkionek Nafarroako Biztanleriaren Estatistikan. 2006 eta 2016 urteetako daturik ez zen jaso.

**Sexua:** Gizonen % 14,9 euskaldunak dira, % 11,7 euskaldun hartzaileak, eta % 73,4 ez- euskaldunak. Aldi berean, emakumeen % 14,8 euskaldunak dira, % 11,5 euskaldun hartzaileak, eta % 73,7 ez-euskaldunak. 2011. urtearekin konparatuz gero, euskaldunen eta euskaldun hartzaileen ehunekoak gora egin du pixka bat gizonen zein emakumeen artean.

**Adina:** 2021. urtean, euskaldunen proportzioa % 25,0tik gorakoa da 24 urtetik beherakoen artean, eta behera egiten du pixkanaka, 65 urte edo gehiagokoen artean % 8,3an kokatzera iritsi arte.

Urteetan zehar izandako bilakaera aztertuz gero, 1986an euskaldunen ehunekoa antzekoa zen adin talde guztietan, eta, urteak igaro ahala, euskaldunen ehunekoak gora egin du 14 urtetik beherakoen artean, 1986ko % 11,8tik 2021eko % 26,7ra. 2011. Urtearekin alderatuta, euskaldunen ehunekoa % 29,1etik % 26,7ra jaitsi da 14 urtetik beherakoen artean, eta gora egin du gainerako adin-taldeetan.

Nafarroako 3 urte edo gehiagoko biztanle euskaldunak adin taldearen arabera




Iturria: NASTAT-Nafarroako Estatistika Erakundea.

**Nazionalitatea:** Atzerritar nazionalitatea duten pertsonen % 1,1 euskaldunak dira, % 2,8 euskaldun hartzaileak eta % 96,1 ez-euskaldunak. Espainiako nazionalitatea duten pertsonen artean, aldiz, % 16,7 euskaldunak dira, % 12,8 euskaldun hartzaileak eta % 70,5 ez-euskaldunak. Atzerritar nazionalitatea duten euskaldunen eta euskaldun hartzaileen ehunekoak aurreko urteetakoak baino txikiagoa da. Izan ere, 1986. urtean % 11,2 eta % 2,7 ziren, hurrenez hurren.

**Jaioterria:** Jaioterria erabakigarria da biztanleriaren euskara ezagutzan. Izan ere, eremu euskaldunean jaiotakoak % 73,9 euskaldunak dira, eta zifra hori % 2,7ra besterik ez da iristen eremu ez-euskaldunean jaiotakoak artean. Nabarmentzekoa da, halaber, Euskadin jaiotakoak % 35,0 euskaldunak direla. Aitzitik, eremu ez-euskaldunean jaiotakoak % 87,3, beste autonomia- erkidego batean jaiotakoak % 92,1 eta atzerrian jaiotakoak % 95,4 ez-euskaldunak dira.

2011. urtearekin alderatuta, euskaldunen eta euskaldun hartzaileen ehunekoak gora egin du, haien jaioterria dena dela ere, Euskadin jaiotakoak kasuan izan ezik, horien proportzioa ehuneko hiru puntu baino gehixeago jaitsi baita, bai euskaldunen bai euskaldun hartzaileen artean.

Nafarroako 3 urte edo gehiagoko biztanle euskaldunak jaioterriaren arabera<sup>9</sup>



Iturria: NASTAT-Nafarroako Estatistika Erakundea.

<sup>9</sup> Indarrean dagoen hizkuntza-zonifikazioaren arabera: 9/2017 Foru Legea, ekainaren 27koa, Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legearen titulua eta artikulua batzuk aldatzen dituena.



**Bizilekuaren hizkuntza eremua:** Euskararen ezagutza ez da berdin banatzen Nafarroako Foru Komunitatean biztanleen bizilekuaren hizkuntza eremuaren arabera. Hala, 2021. urtean, eremu euskaldunean bizi direnen % 62,1, eremu mistoan bizi direnen % 13,5 eta eremu ez- euskaldunean bizi direnen % 2,7 euskaldunak dira. Emaiza horiek 2011. urtekoekin konparatuz gero, ondoriozta daiteke eremu euskaldunean eta eremu mistoan euskaldunen proportzioa ehuneko hiru puntu eta puntu bat igo dela, hurrenez hurren, eta eremu ez-euskaldunean antzera mantendu dela.

Nafarroako 3 urte edo gehiagoko biztanleak hizkuntza-gaitasunaren eta bizilekuaren hizkuntza eremuaren arabera (2021)


	Euskalduna	Euskaldun hartzailea	Ez-euskalduna
Eremu euskalduna	% 62,1	% 13,1	% 24,8
Eremu mistoa	% 13,5	% 13,0	% 73,5
Eremu ez-euskalduna	% 2,7	% 7,9	% 89,4

Iturria: NASTAT-Nafarroako Estatistika Erakundea.

**Udalerriak:** Euskaldunen proportzioa % 80,0tik gorakoa da Nafarroako Foru Komunitateko 272 udalerrietako 21ean. Udalerri horiek guztiak eremu euskaldunean daude. Urroz (% 95,3) da biztanle euskaldunen ehunekorik handiena duen udalerria, eta Arantza (% 91,9) eta Araitz (% 91,5) dira hurrengoak. Bestalde, euskaldunen proportzioa biztanleen % 1,0 baino txikiagoa duten 19 udalerri daude, guztiak ere eremu ez-euskaldunean kokatuta, Gorza izan ezik, eremu mistoan dago-eta.

### Nafarroako 3 urte edo gehiagoko biztanle euskaldunak udalerrien arabera (2021)

- % 4 baino gutxiago
- % 4 eta % 10 bitartean
- % 10 eta % 17 bitartean
- % 17 eta % 40 bitartean
- % 40 baino gehiago



Iturria: NASTAT-Nafarroako Estatistika Erakundea.

## 2. ERANSKINA

# DEPARTAMENTUETAKO 2019-2022 PLANEN EBALUAZIOAREN ONDORIO NAGUSIAK

Departamentuetan hizkuntza planak aurreko legegintzaldian jarri ziren abian. Plangintza hauen bidez hizkuntzaren kudeaketa zeharkakotasunez integratzea da helburua: departamentuak antolatzea, gaitzea eta zeregin horretan laguntzea. Azken helburua, beraz, departamentuek modu autonomoan eta koordinatuan hizkuntzen kudeaketa antolatua izatea da. Nafarroako Gobernuak 2023ko ekainean 2019-2022 epealdiko departamentuetako hizkuntza planen ebaluazio [txostena](#) argitaratu zuen.

Ondorio orokor moduan agerian utzi beharra dago Foru Administrazioako plantilla organikoan dauden euskarazko eskakizunen kopurua ez dela nahikoa herritarrei eskaintzen zaizkien zerbitzuak ele bitan eskaini ahal izateko, ezta eremu euskaldunear ere. Horrek, langileen euskararen ezagutzari buruzko informazio faltarekin batera, hizkuntza plangintzaren garapena baldintzatzen du.

Aintzat hartu behar da langile elebidunen kopurua emendatu bitartean prestakuntzak eta itzulpenak pisu handia izango dutela hizkuntzaren normalizazio prozesuan. Halaber, azpimarratzekoa da momentuz soilik Foru Administrazioaren egituraren eragiten hasi dela, baina zerbitzu publikoak ikuspegi zabaletik hartuz gero, Nafarroako sektore publikoaren eta beste administrazio publikoen dimentsio osoari erreparatzea dago egiteke, hizkuntza plangintzaren arloan.

Beste ondorio nagusi bat izan da hizkuntza planen bidez agerian geratu direla Nafarroako Gobernuak dituen hainbat prozedurazko hutsune, zeharka hizkuntzen kudeaketan eragina dutenak, esate baterako arretagune, telefono eta webguneen atomizazioa, Erakunde Nortasun Eskulibururik onartua ez izatea edo elebitasuna bermatu ezin duten plataforma informatikoak erabiltzea.

Jarraian ondorioak hizkuntza planen helburuen arabera zehaztuko dira:

## **LANGILEEN EZAGUTZA, HIZKUNTZA ESKAKIZUNAK ETA PRESTAKUNTZA BEHARRAK**

Esan bezala, momentu honetan Nafarroako Gobernuak ez dauka langileen euskararen ezagutza maila zein den jakiteko sistema antolaturik. Ondorioz, ez dago 25.301 langile horiek duten euskara gaitasunaren datu zehatzik. Datozen urteetan datu hau eskuratzeko neurriak hartzea estrategikoa izango da, langileen euskararen ezagutza datuak bete betean baldintzatzen baitu zerbitzua bi hizkuntzatan emateko gaitasuna, eta, halaber, baldintzatzen dituelako helburu hori lortzeko planifikatu beharreko neurriak.

Bigarren plangintzaldirako gakoa izango da departamentuek egindako HEn proposamena onartzea. Izan ere, prozesua burutu gabe dago eta burutu ezean ezin izanen da urratsik eman HEn esleipenean. Behin onartuta, aztertu beharko da HE duten lanpostuetako langileek duten hizkuntza maila zein den, eta horren arabera prestakuntza beharrak identifikatu eta langile horiek gaitu edo kualifikatzeko ibilbideak diseinatu eta martxan jarri beharko dira. Langile horiek lehentasuna izanen dute Prestakuntza Atalak eskaintzen dituen baliabideak erabiltzeko, eta hemen, baliabideak emendatzeko aurreikuspena egitea garrantzitsua litzateke. Izan ere, gaur gaurkoz, eta HE duten lanpostuetako langileen beharrak aztertu gabe, Prestakuntza Atalak eskaintzen dituen plaza guztiak bete egiten dira borondatez izena ematen duten langileen izen-ematearekin eta gaur egun, dagoeneko, ikastarorik gabe geratzen da izena ematen dutenenen % 18a. Horrek bi ondorio esanguratsu plazaratzen ditu:

- Derrigortasunik izan ez arren badago langileen kopuru esanguratsu bat bere kasa euskara ikasteko hautua egin duena. Hauek euskalduntze bide horretan laguntzen jarraitzea eta hobetzea estrategikoa da Nafarroako Administrazio publikoarentzat, ikusirik gaur gaurkoz ez duela gaitasunik zerbitzu elebiduna bermatzeko.
- HEn proposamena onartzen bada, gerta liteke hainbat langilek euskalduntze eta gaikuntza premiak edukitzea, eta momentu honetan Prestakuntza Atalak eskaintzen dituen ikastaroetan parte hartzea. Honek egun dauden izen-emateen kopuruak gora egitea ekarriko luke, eta langile hauek zerbitzu horiek jasotzeko lehentasuna izango lukete.

Euskara ikasteko edo hobetzeko ikastaroak egiteko baimenei dagokienez, baimena izateak langileei erraztu egiten die ikasketa prozesua, lana eta bizitza pertsonal eta familiarra kontziliatzea. Baina departamentuei lan karga handitzea edo ordezko pertsonen kontratazioa suposatu ahal die, hortaz, aurrera begira departamentuek honen aurreikuspena egitea komenigarria litzateke, eta baita prozesu hau inbertsio moduan ulertzea ere.

Begirada aurrerago jarritz, HE ezartzeko helburu bat adostea egokia litzateke, aurreikuspenak egin ahal izateko eta prestakuntzaren plangintza hobetzeko. Argi geratu da, esate baterako, herritarrekiko harreman telematikoek duten garrantzia, hortaz HE esleitzerakoan ere kontuan hartu behar dira horretaz arduratzen diren lanpostuak.

## **HERRITARREKIKO AHOZKO HARREMANAK**

Identifikazioari dagokionez, herritarren euskararen erabilera aktibatzeke baliagarria den neurrian, aurrera begira arreta euskaraz egiteko gaitasuna duten langile gehiagorengana halako euskarriak hedatzea aurreikusten da. Bestalde, Euskaraldiak lehendik ere Departamentuetan egiten ari den lanketari estalpe orokorra eta gizartearekin bat egiteko aukera eskaini du. Aurrerantzean ere ekimen honen bultzada baliatzen jarraitzea aurreikusten da.

## **HERRITARREKIKO IDATZIZKO HARREMANAK**

Aurrera begirako erronka moduan, eta itzulpenaren arloan gertatzen ari diren aurrerapen garrantzitsuak baliatuz, sortzen diren idatzizko komunikazioen elebitasuna bermatzeko sistema edo lanaren antolamendu berriak aztertu beharko lirateke.

Jarraian, ondorioak datuen analisisan erabilitako idatzizko komunikazioaren banaketaren arabera zehaztuko dira:

## **WEBGUNEAK**

Nafarroako Gobernuak eta bere departamentuek webgune ugari dituzte, eta horien kudeaketa ez dago zentralizatuta. Horrek zaildu egiten du eduki guztietan eragitea.

Webguneen artean bi mota nagusi daude: korporatiboak eta departamentuetako bestelako webguneak. Korporatiboen artean nagusia den nafarroa.eus atariaren egitura eta edukiak Komunikazioko eta Erakundeekiko Harremanetako Zuzendaritza Nagusiaren barruan dagoen Navarra.es Atariaren Atalak kudeatzen ditu. Azken 3 urteetan egin den eguneratze prozesuaren baitan elebitasuna txertatu da eta horri esker bertan jorratzen diren 20 gaiak ia bere osoan bi hizkuntzatan daude. Halere, ez da lortu webgunea bere osoan bi hizkuntzatan egotea, legeak dioen moduan. Datozen urteetan webgune honetako atalak bi hizkuntzatan emateko lanketari segida emango zaio, baita aldikako birpasatzeari ere, edukien eguneratzea ere elebiduna izatea bermatzeari begira. Bestalde, Gobernu Irekia, Nafarroako Turismoa eta Kontratazio atariari dagokienez, 2019an lehenbiziko biak ele bitan eta hirugarrena gaztelaniaz zeuden eta 2022an denak ele bitan, hortaz hauekin ere berdin jokatuko da.

Departamentuetako gainerako webguneei dagokienez, atomizazioa handia da: 249 webgune identifikatu dira. Eta horien heterogeneotasuna ere oso handia da: jabe, editore eta kudeatzaile desberdinak dituzte, lantzen dituzten edukien nolakotasuna oso anitza, xede taldeak desberdinak, inpaktu maila desberdina, etab. Aurrera begira beste webguneen azterketa sistematizatu beharko litzateke.

## **TRAMITE ELEKTRONIKOAK**

Herritarrekiko harremanetan duten garrantziagatik tramiteak bi hizkuntzatan eskaintzeko lanketa egin da. Tramiteetako edukiak Departamentuetako editore ezberdinek kudeatzen dituzte eta honek sakabanaketa handia dakar. Datozen urteetan pausoak ematen jarraituko da, eta aldikako tramiteei ere helduko zaie.

## **SARE SOZIALAK**

Momentuko erantzunak pisu estrategikoa du sareen erabileran, eta itzulpen atalak eskatzen duen prozedurak denboran luzatzea ekarriko du. Horrexegatik sareen kudeatzaileek beraiek lan hori euskaraz ere egin dezaten neurriak hartzea beharrezkoa izanen da.

## **HERRITARRENTZAKO ETA INSTITUZIOETARAKO KOMUNIKAZIOAK**

Hizkuntza aukeratzeko sistema—ezartzeke dago, herritarrek hizkuntza ofizialetako bat aukeratzeko eskubidea baitute ere (horren ezean, ele bitan idatzi beharko da). Arlo honetan aurrerapausoak emateko Toki Administrazioiko Zuzendaritzarekin eta eremu euskalduneko toki entitateekin elkarlana ezinbestekoa suertatuko da. Bestelako komunikazio idatziak modu sistematikoan aztertzea ere erronka izango da.

## **ALBISTEAK**

Aurrera begira eraginkorragoa litzateke albisteak hasieratik euskaraz eta gaztelaniaz sortzea, aldibereko eduki elebidunak argitaratu ahal izateko. Izan ere, arintasuna behar duen dinamika izanik (albistek gaurkotasuna galtzen baitute denborak aurrera egin ahala), itzulpena kanpoan egin behar izateak zailtasun gehigarriak ditu, bereziki kontratatutako zerbitzuak beharrezko lanei aurre egiteko ahalmenik ez duenean.

## **KOMUNIKAZIO KANPAINAK**

Aurrera begira, bi erronka aurreikus daitezke. Batetik, Komunikazioko eta Erakundeekiko Harremanetako Zuzendaritza Nagusiak egindako bideari eustea. Bestetik, egiteko modu hori aztertu, dokumentatu eta departamentuek beren kabuz kanpainak egiten dituztenean irizpide horiek aintzat hartuz jokatzeko neurriak hartzea. Irizpide horiei dagokienez, kanpainetan gero eta ohikoagoak diren bideoen hizkuntza kudeaketa sakonago aztertu eta adostu beharreko gaia da, ahozko hizkuntzari dagokiona alde batetik, eta azpigituluen hizkuntza edo hizkuntzak bestetik.

## **ARGITALPENAK**

Aurrera begira, Nafarroako Gobernuak argitalpen guztiak ele bitan egin daitezkeen bermatzeko prozedura ezarri beharko da, eta bide horretan lagungarria da ele biko edizio edo euskarri bakarra sortzea, izan ere bi edizio edo euskarri ezberdinetan egitean euskarazko bertsioa sarritan bidean galdu egiten dela ikusi da. Liburuen kasuan, garrantzitsua da kontuan hartzea gehienetan egilea ez dela Gobernuak langilea, eta hortaz itzulpen espezializatuaren bidea erabili behar dela (horrek suposatzen duen lan kargarekin, bereziki gai teknikoa denean edo hizkuntza literarioa erabiltzen denean).

## **ITZULPEN ZERBITZUA**

Itzulpengintzarako irizpide orokorrak ezarri beharko lirateke, eta horiek, besteren artean, itzulpen eskaeren artean lehentasunak jartzen lagunduko lukete.

Horrekin batera, sortze hizkuntza euskara izaten joan dadin, egun teknologiak eskaintzen dituen baliabideak (itzultzaile neuronalak kasu) langileen artean hedatu eta horiek erabiltzen trebatzeak lan ildo izan beharko luke.

## **HIZKUNTZA PAISAIA**

Begirada etorkizunean jarriz, Erakunde Nortasun Eskuliburua onartzeaz gain, egoitzen azterketa zabaldu beharra dago, Gobernuak egoitza guztietara heldu arte, eta azterketa hauen aldikako jarraipena antolatzeko sistema ezarri behar da, egindako proposamenak aurrera eraman direla bermatzeko eta egitura aldaketan ondorioz moldaketarik egon den aztertzeko. Bestalde, departamentuek egoitza berri bat egiteko proiektua martxan jartzen dutenean, hasieratik elebitasuna kontuan hartzeko prozedura ere ezarri beharko litzateke, azpiegituretaz arduratzen diren unitateekin koordinatuz.